

**IRAKASKUNTZA-GIDA** 2019/20

**Ikastegia** 231 - Psikologia Fakultatea

**Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GPSICO20 - Psikologiako Gradua

**Ikastaroa** 4. maila

**IRAKASGAIA**

25105 - Prácticas externas

**ECTS kredituak:** 12

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Practicumean (12 ECTS kreditu) kanpoko praktikak egiten dira eta graduaren azken lauhilekoan programatzen da, prestakuntza akademikoa landu ondoren. Helburua da harremanetan jartzea ikasleak lan profesionalarekin, psikologiaren hainbat alorretan: Psikologia Klinikoa eta Osasunarena, Hezkuntzaren psikologia, Esku hartze psikosoziala eta Lanaren psikologia. Praktikak egiten dira UPV/EHUrekin hitzarmenak dituzten erakundeetan, psikologo baten gainbegiradapean beti (ikastegiko begiralea).

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Practicumaren helburu nagusia da ikasleek aukera gehiago izatea etorkizunean laneratzeko eta unitate profesional batera egokitzeko, lan erakunde edo zentro bat nola dagoen egituratuta eta nola funtzionatzen duen ikasiz. Praktiketara, ikasleak trebatuko dira lan ingurune batean ohikoak diren harreman pertsonal eta profesionaletan.

Practicumaren gaitasunak dira:

- Gai izatea norbanakoen, taldeen eta taldearteko desberdintasunak, beharrak eta arazoak identifikatzeko, kontuan izanik zer testuingurutan garatzen diren haien jokabideak.
- Gai izatea oinarrizko esku hartzearen helburuak eta plana definitzeko, haren eginkizunaren arabera.
- Gai izatea hartzaileengan oinarrizko esku hartze estrategiak eta metodoak aplikatzeko: aholku psikologikoa, aholkularitza, negoziazioa, bitartekaritza.
- Gai izatea txosten teknikoak ahoz eta idatziz egiteko, eta berrelikadura emateko hartzaileei, egoki eta zehatz.
- Gai izatea arazoak konpontzeko eta erabakiak hartzeko.
- Gai izatea erantzukizunak hartzeko eta diziplina anitzeko taldeetan aritzeko.
- Gai izatea ikuspegi etiko bat hartzeko lanbidearen arlo guztietan, aintzat harturik kode deontologikoa.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

**METODOLOGIA**

Kanpoko praktika presentzialak erakunde batean.

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak									
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.									

**Legenda:** M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.  
 GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoa  
 TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

**EBALUAZIO-SISTEMAK**

- Azken ebaluazioaren sistema

**KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK**

- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 70
- Banakako lanak % 30

**OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Practicumaren ebaluazioa oinarrizko da bai kanpo tutoreak (begiralea) bai barne tutoreak (fakultateko irakaslea) eginiko ebaluazioan, ehuneko hauen arabera:

-Kanpo tutorearen ebaluazioa: % 70. Practicumean zehaztutako gaitasunak zer mailataraino eskuratu diren ebaluatuko da.

Balorazioa egingo da fakultateko practicumaren batzordeak zehaztutako errubrikaren arabera.

-Barne tutorearen ebaluazioa: % 30. Barne tutoreak ebaluatuko du ikasleak eginiko practicumari buruzko amaierako txostena (praktiken memoria).

**EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Irakasgai honek deialdi bakarra du urtean.

## **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

## **BIBLIOGRAFIA**

**Oinarrizko bibliografia**

**Gehiago sakontzeko bibliografia**

**Aldizkariak**

**Interneteko helbide interesgarriak**

## **OHARRAK**